



# PRENTSA DOZIERA

2023ko urriaren 10eko prentsaurrekoa, Baionan

- 
- Beñat Molimos, EHLGko lehendakaria
  - Agnès Sallaberry, laboraria eta EHLGko bulegoko kidea
  - Iker Elosegi, EHLGko koordinatzailea

Prentsa harremana : Maritxu Inçagaray Haiçaguerre (maritxu@ehlgbai.org)  
Euskal Herriko Laborantza Ganbara : 05 59 37 18 82 | www.ehlgbai.org



**Euskal Herriko Laborantza Ganbarak (EHLG) bere dohaintza kanpaina berria 2023ko urriaren 16tik azaroaren 26ra eramanen du, TRANTSIZIOAK gaiaren inguruan.**

Agroekologia, agro-oihangintza, etxaldearen autonomia garatzen dituzten laborantzaren eredu iraunkorrako trantsizioak sustatzea... hau da Euskal Herriko Laborantza Ganbarak Iparraldeko etxaldeetan eta lurralde mailan finkatu dituen eginkizunak, laborariak laborantza herrikoia oinarriak aplikatzen lagunduz.

Laborariak dira aktore nagusiak, etxaldeetan « egiten » dutenak. Guk haien praktikak hobetzen laguntzen ditugu, erosten dituzten gaietarik libratzeko eta klima aldaketaren ondorioeri egokitzeko.

## **Praktika agronomikoak eta alorren kudeaketa egokitu baliabideak xuhurki erabiltzeko eta lurraren bizia babesteko**

### **► Pentzeen kalitatea**

Belarra, artaldeak elikatzeko baliabide nagusia da. Elikadura horretan oinarritzea, kabalen osagarri onaren eta kontsumitzaileentzat kalitatezko produktuen segurtasuna da.

EHLG-k hainbat lan eramaiten ditu pentzeen kalitatea bermatzeko :

- entseguak eramaiten ditu etxaldeetan, pentzetako onkailu mineralen erabilpena ttipitzeko edota gelditzeko ;
- pentzeen emankortasuna eta iraunkortasuna hobetzeko segipen lanak bestalde ;
- lur eta landare-adierazleen diagnostikak ere bai, pozoinen erabilpena mugatzeko ;
- eta laborari belaunaldi berriaren jarraipena (laborantzan hasi berriak, ikasleak), pentzeetan lurzoru iraunkorrak ukaiten eta artaldeentzat kalitatezko bazkak egiten ikas dezaten.

Ekintza horieri esker, laborariak gutiago erosten dute, autonomia irabazten, eta klima-aldaketan ahal bezain guti eragiten.

### **Zenbaki batzu**



EHLG-k 10 eta 20 bat pentze-diagnostiko artean egiten ditu urtero, haien bazka-sistema hobetu nahi duten laborarientzat.

Diagnostikoa osatzen duten etapen artean, pentzearen ekoizpenaren jarraipena bada, besteak-beste.

Pausatuak diren kaiolek, hektara bateko bazka ekoizpena eta kalitatea ikusteko parada emaiten dute.

## ► Trantsizio agroekologikoaren oinarri nagusi bat : « belar tzarren » kentze mekanikoa



Euskal Herriko Laborantza Ganbarak « belar tzarren » kentze mekanikoaz egunaldi teknikoak eta segipenak antolatzen ditu urtero.

Landetan pusa daitezken « belar tzarrak » mozteko edota errotik ateratzeko tresneria berezia bada (*bineuse, herse étrille, houe rotative*). Laborari bakar batek nekez eros ditzazken maxina horiek. Materiala berezi hori CUMA kooperatibetan atxemaiten ahal du errexki.

« Belar tzarren » kentze mekanikoak kentze kimikoak baino behaketa eta aitzinikuspen gehiago galdegiten du. Hala ere, metodo hori gero eta gehiago garatzen da etxaldeetan, hainbat onura baititu : autonomia irabaztea (belar-pozoi garestirik ez erosteko beharrik), lurzorua zaindua, eragin guti ingurumenean.

Ondorioz, «belar tzarren » kentze mekanikoa produktu fitosanitarioen erabilpena mugatzeko, edo berdin gabe lan egiteko aterabide ona da, eta uraren eta lurzorua kalitatearen begiratzeko erronkeri erantzuten du.

## ► Etxaldeko mikro-organismoak erabili : eroste gutiago, bizi gehiago

Etxaldeko mikro-organismoen erabiltzeak ongarrien eta lurren funtzionamendua hobetzen du.

Erabilpen hori aspaldikoa da laborantzian. Prestakuntza hauek egiteko aski errexak dira eta etxaldeeri autonomia gehiago emaiten diete :

- kalitate hobeko ongarriak, hobeki usteltzen direnak,
- ongarriak tratatzeko komertsioko bakteriorik ez erosteko beharrik,
- osagarri arazo gutiago bastimenduetan,
- onkailu mineralen erabilpena mugatua.

Prestakuntza horiek lurraren betekizunak eta emankortasuna hobetzen dituzte, dauzkaten mikro-organismo bizien ekintzari esker. Onkailu kimikorik ez erabiltzeko aukera paregabea da.

### Laster !



Abendutik goiti, EHLG-k formakuntza ziklo berri bat abiatzen du etxaldeko mikro-organismoak nola erabiltzen ahal diren irakasteko laborarieri. Segimendu individuala ere proposatua izanen zaie, helburua delarik hazkuntzarako bastimenduen giro eta ingurumena eta ongarri eta pizen kalitatea hobetzea.

Formakuntza denboran, laborariek etxen bakarrik erreski berriz egiteko fabrikazio errezeta ikasten ahaliko dute :

- edo, jatorrizko mikro-organismoa etxaldean berean bilduz,
- edo, oihanetan, mikroorganismo eta onddoz ereinak izan diren hosto eta adartxo ustelak bilduz.

## ► Baliabide naturalak guti erabiltzen dituzten alorrak : ogiaren adibidea

EHLG-k Herriko Ogia<sup>1</sup> sailan parte hartzen du. Kalitatezko ekoizpen bat bertokiratzeko eta dibertsifikatzeko helburua duen tokiko gari/irina/ogi saila da hau.

EHLG-k alorren segipen teknikoak segurtatzen du, hogoi bat gari ekoizleentzat.

Zein dira garigintzaren alde onak ?

- udan urik behar ez duen neguko alor bat lantzea ;
- lurzorua zaintzea, baitezpadako alor aldizkatzeari esker, artogintza bakarra saihestuz ;
- karbono-aztarna murriztea, garraioak mugatuz : ekoiztea, biltzea, transformatzea eta saltzea 150 km-ko perimetroan egiten da ;
- laborarieri ordainsari bat segurtatzea, urte zailetan ere bai...



### Ogia egiteko gari alorren kudeaketa :

Barietate bat baino gehiago nahasiak dira ogilanda berean. Horri esker, eritasunak ez dira sobera garazten, barietate azkarrerri esker eta pozoiaren erabilpena mugatua da.

Kalitatezko ekoizpen bat segurtatua zaie kontsumitzaileeri.

→ *Garia hazten den ber artoski begiratua da.*

## ► Agro-oihangintza : zuhaitza etxaldean jasangarritasunaren berme

Etxalde batean aplika daitezkeen sistema agroekologikoen artean, erran gabe doa agro-oihangintzak baduela bere lekua. Etxaldeko ekoizpen nagusia osatzeaz gain, hesiak eta zuhaitzek beste abantaila frango dituzte :

- bastimenduak eta kabalak haizetik babestea, itzala ekartzea,
- pentze eta landak zerratzea,
- fruitu eta bazka iturria,
- lurraren higadura mugatzea,
- biodibertsitatearen itzultzea,
- lurraren emankortasuna hobetzea,
- etab.

Hazkuntzan, egurra kabalen inaurkiarentzat erabiltzen da.

Azkenik, agro-oihangintzak karbonoz neutroa den energia emaiten du : egurra, jezteko gelako urberotegia elikatzeke erabiltzen da adibidez, baita etxebizitzako suko egur gisa ere.

### Zenbaki batzu



EHLG-k etxalde bakotxari egokituak diren proiektuak jarraitzen ditu eta urtean 3.000 zuhaitz baino gehiago landatuz. Gutxi iduri luke beste eskualde batzueri begiratzen badugu... biziki da egiazki, Iparraldeko etxalde ttipien neurria konduktan hartzen badugu. Gutxi gorabehera, 7,5 km linealeko hesiak eta partzela barneko zuhaitz lerroak landatuak izan dira !

<sup>1</sup> Herriko Ogia sailaren derrigorrezko baldintzak besteak-beste : barietate hibridoak debekatuak dira, pozoi erabilpena ere bai, prebentziozko tratamenduak baizik ez dira onartuak eta azkarki mugatuak dira ogigintza klasikoari konparatuz.

## Trantsizio energikoaren bidean

**Energia-trantsizioari** dagokionez, Iparraldeko energia-burujabetasunaren helburua lehentasunetan da, elikagai-burujabetasunaren helburua bezala .

Gogoeta kolektibo bat hasi berri dugu I-Ener, Bizi eta ELB sindikatarekin, energia berriztagarrien lasterragotzearen frantses legearen ondorioak lurralde mailan aztertzeko, bereziki, laborantza herrikoia eta etxalde ttipien laborantzarekin bateragarria izaiten ahal den eguzki-panelen ustiatzea aztertzeko.

Lana hasi berria da eta 2024an segituko du, eguzki-energi panelak laborantza lurren gainean instalatzea egokia ote den ikertzeko, besteak beste.

## EHLGri emaitza trantsizioak eraikitzen laguntzeko molde ezin hobea

Izan partikular edo enpresa, 800 bat emailek Euskal Herriko Laborantza Ganbara diruz laguntzen dute.

Argitan ezarri nahi ditugu horien arteko batzueri hitza emanez.

### ① Michèle Elichirigoity, Bordaleko emailea



« Bordelen, nun bizi naizen, Bordaleko Euskal Etxea euskal kulturaren ordezkaria da eta Euskal Herriko errealitate ekonomikoa ezagutarazi nahi du. Enplegua, lurraldearen eta laborantza lurren zaintzaren alde lan egiten duten elkarteko ordezkariak errezebitzeko ohitura du... 2010ean, Euskal Herriko Laborantza Ganbara gaztearen aktualitatea segitu ginuen auziperatua izan zelarik eta Idoki eta Bio labelapeko produktuak saltzen hasi ginen ere gure dendan. Orduan, 2021. urteko Ondarearen egunen kariatara, tokiko garapenaren alde lan egiten duten eragile batzu Bordeleko jendeari presentatu nahi izan dugularik, EHLG elkartearengana itzuli nintzen. Geroztik, emaile bilakatu naiz, fisikoki urrun baina gogotsu. Konbentzitu ninduten argumentuak? Lehenik, abiapunduaren originaltasuna : ikuspegi kolektibo bat, aho batekoa eta baketsua. Gero, lurraldean finkatua den proiektua garatzea eta giza-faktoreak kondutan hartzea. Azkenik, etorkizunari buruz jotzeko xedea.

Argumentu horiek ongi aurkeztuak zaizkie web guneko bisitarien eskura utzia den komunikazio material bikainean. Izar Lorea aldizkariaren artikuluen kalitatea preziatzen dut baita elkartearen formakuntza proposamenak. Adibidez, etxalde transmisioaren eta laborantzan instalatzearen aldeko ekintzek ene arreta guzia bildu dute. LURRAMA ezinbesteko hitzordua omen da. Aurten, « emazteen lekua » izanen da gai nagusia, kantuz aritzeko lekua ere badela ikusi dut : erabakia hartua dut ! LURRAMA etxaldera joango naiz, agian Euskal Etxeko beste kantari batzuekin eta, segurrenik, boneta buru gainean argazki huntan bezala ! »

### ② Beñat Elkegaray eta Jean-Jacques Carriquiriborde, ELKAR enpresa, Maule



« Euskal Herriko Laborantza Ganbara laguntzen dugu, hebenko laborarietako tresna kolektibo bat sortu bitute. Orekatutako tresna bat, bai sozial arloan, bai kalitatezko ekoizpenen sailean, bai ingurumenaren errespetuan. Hortan da gure lurraldearen aberastasuna.

« Uste dugu, industrian ere, ber bidea jarraiki behar dugula. »

### ③ Xabi et Johan Harluxet, laborariak Ahatsan



« Aita ta ama hasi ziren hilabetero EHLG diruz laguntzen, haren sortzetik. Balio handia du guretzat holako estruktura bat etxetik hurbil ukaiteak. Desmartxa juridiko eta administratibo desberdinetan lagundu gaitu Laborantza Ganbarak. Laborantza iraunkorra oinarritzat harturik, sail bakotxan formakuntza ainitz eskaintzen ditu laborarier. Jakin izan du aintzindari izaiten eta gaur egun eskainiak diren zerbitzu batzu hor baizik ez dira atxemaiten.

Formakuntza kolektiboak eginez, EHLG-k ainitz laborari elgar kurutzarazten ditu eta batak bestetik ikasteko parada emaiten. Egun guziz egiten dugun lanean entseatzen gira gu ere egin ahala laborantxa herrikoi eta iraunkor bati lotzen, guretzat zentzua baitu manera hortan lanean hartzeak. Gero ta

gehiago ohartzen gira ze xantza dugun gure aintzinekoek holako egitura bat muntaturik, Euskal Herriatik urruntxago joaiten laborantxak ez baitu batere itxura bera... Baina badakigu hori guziak gastu bat baduela beraz guretzat normala da laguntzen segitzea. »

### ④ Terexa Goicoechea, GOICOECHEA enpresa, Ortaize



« Hiru belaunaldiko artisau aktore ekonomikoa, Goicoechea familiak Euskal Herriko Laborantza Ganbarako baloreak sustengatzen ditu. Gure lurraldeari lotuak izanki, Ortaizeko zeramika eta poteria enpresa mantentzen eta garatzen entseatzen gira.

Pasioa eta kreatibitatearekin eraman ditugun urte horiei esker, gure lana ezagutua eta baloratua izan da. Enpresa hau, Iñaki eta Maitena, bi seme-alabek segituko dutenez, aktibitatea eta lanbideak mantentzeko oportunitatea badugu.

Gure gaur egungo helburua da, autonomia eta interdependentzia ahalbidetzea globalizazioari erantzuteko. Lantzen dugun materia gure harrobitik ateratzen da, gure hornitzaileak herrikoak dira eta banaketa zirkuitoak gure eskupean dira.

Luzaran irauteko, produkzio eta zerbitzu kalitate hobetzeak ez du sekulan gelditu behar.

Laborantza munduko aktoreak laguntzen baititu geroari sinesten, eta lan noble hau balorizatzen baitu, EHLG-ko politikak hunkitzen gaitu.

Gure lurraldea aberatsa da, bere garatzea eta zaintzea gure esku da. »

### ⑤ Nadia Ansolabehere, laboraria Anhauen



« Ene sustengua ekartzen diot Euskal Herriko Laborantza Ganbarari, eguneroko lan bat eramaiten duelako laborantza herrikoi eta iraunkor baten alde.

EHLGko langile trebe eta osoki inplikatuerei ene sustengua ekartzen diet ezen ene etxealdeari buruzko desmartxa eta hartu erabakietan laguntzen bainaute.

EHLGri ene laguntza ekartzen diot Euskal Herriaren garapen dinamiko baten alde den laborari sare batean sartzeko aukera emaiten dautalako. »





EHLG-ren ekintzak dohaintza baten bidez laguntzen ahal dira. Partikularra izan edo enpresa, nahaintek aldi bateko emaitza egiten ahal dute edo biramendu bat plantan eman, euroz edo euskoz :

- banku biramenduz : [www.ehlgbai.org](http://www.ehlgbai.org)
- txekez

EHLG-k dohaintza-kanpainaren 6 aste hauek aprobetxatuko ditu TRANTSIZIOEN ildotik doazen ekintzak argitan emaiteko :

- berripaperaren bidez
- sare sozialetan

**Trantsizioak gure esku !**

